

BIZI HITZA

Uztaila 2025

«Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion» (Lk 10, 33).

Martine-k metroz bidaiatzen du Europako hiri handi batean. Bidaiari guztiak euren mugikorrean kontzentratuta daude. Birtualki konektatuta daude, baina isolamenduan harrapatuta. Bere buruari galdetzen dio: «Ez ote gara elkarri begiratzeko gai izango?».

Esperientzia arrunta da, batez ere ondasun materialetan aberatsak baina giza harremanetan gero eta pobreagoak diren gizarteetan. Eta hala ere, Ebanjelioa, «gauza guztiak berriak egiteko» gai dena (*cf. Ap 21, 5*), beti itzultzen da jatorrizko proposamen sortzailearekin.

Betiko bizitza ondareztat jasotzeko zer egin behar duen galdetzen dion lege-maisuarekin izandako elkarriketa luzean (*cf. Lk 10, 25-37*), Jesusek samariar onaren parabola ospetsuarekin erantzuten dio: apaiz bat eta lebita bat, garai hartako gizarteko figura garrantzitsuak, lapur batzuek erasotako gizon bat ikusten dute bidearen ertzean, baina aurrera egiten dute.

«Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion».

Lege-maisuari, hurkoarenganako maitasunaren jainkozko agindua ongi ezagutzen duenari (*cf. Dt 6, 5; Lb 19, 18*), zismatikotzat eta etsaitzat duten atzerritarraren adibidea ematen dio Jesusek: honek bidaiari zauritua ikusten du eta errukia du, barrutik, giza bihotzetik, datorren sentimendua. Orduan bidaia eten, harengana hurbildu eta zaindu egiten du.

Jesusek badaki gizaki oro bekatuak zaurituta dagoela, eta horixe da, hain zuzen ere, bere eginkizuna: bihotzak Jainkoaren errukiarekin eta doako barkamenarekin sendatzea, beraiek ere hurbiltzeko eta partekatzeko gai izan daitezen.

«[...] Aita bezala errukitsuak izaten ikasteko, Bera bezala perfektuak, Jesusengan erreparatu behar dugu, Aitaren maitasunaren errebelazio osoa baita. [...] maitasuna da beste guztiari zentzua ematen dion balio absolutua, [...] bere adierazpenik gorena errukian aurkitzen duena. Erruki horrek laguntzen digu egunero, familian, klasean edo lanean gurekin bizi diren pertsonak beti berri ikusten, haien akatsak eta hutsegiteak gogoratu gabe; ez

epaitzen laguntzeaz gain, jasandako irainak barkatzen ere laguntzen diguna. Baita ahaztera ere»¹).

«Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion».

Azken erantzun erabakigarria gonbidapen argi baten bidez adierazten da: «Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste» (Lk 10, 37). Horixe errepikatzen dio Jesusek bere Hitza hartzen duen edonori: lagun hurko bihurtzea, egunero bizitzako bideetan gurutzatzen ditugun pertsonen zauriak ukitzeko ekimena hartuz.

Hurbiltasun ebanjelikoa bizitzeko, eska diezaiozun Jesusi, batez ere aurreiritzien itsutasunetik eta axolagabekeriatik senda gaitzala, geure buruaz harago ikustea eragozten baitigu.

Gero, ikas dezagun Samiarrarengandik bere erruki-gaitasuna, bere bizitza jokoan jartzera bultzatzen duena. Imita dezagun bestearengana lehen urratsa emateko duen bizkortasuna, entzuteko prestasuna, haren mina gure egiteko, epaiketarik gabe eta «denbora galtzen» ari garela kezkatu gabe.

Hori da Koreako neska gazte baten esperientzia: «Nire kulturakoa ez zen eta ondo ezagutzen ez nuen nerabe bati laguntzen saiatu nintzen. Zer eta nola egin ez nekien arren, adorea hartu eta egin egin nuen. Eta harriduraz konturatu nintzen, laguntza hori emanez, nire barneko zauriak sendatzen zitzaizkidala».

Hitz honek kristau humanismoaren giltza eskaintzen digu: Jainkoaren irudia islatzen den gure gizatasun partekatuaz jabetu arazten gaitu, eta hurbiltasun fisiko eta kulturalaren kategoria ausardiaz gaingitzen irakasten digu. Ikuspegi horretatik, posible da geurearen mugak zabaltzea, guztion horizonteraino, eta gizarte-bizitzaren oinarriak berreskuratzea.

Letizia Magri eta Bizi Hitzaren taldea

¹ C. LUBICH, 2002ko ekaineko Bizi-Hitza: Ciudad Nueva 388 zbk. (2002/6), 17. or.